

BALIOETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA: ESKOLA-
MATERIALAK TRANSMITITZEN DITUEN BALIOEN
ANALISIA

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Eskudero Esnaola, Irati.

ZUZENDARIA: Fernández Aragón, Iraide.

2020/2021

Balioetan oinarritutako hezkuntza: eskola-materialak transmititzen dituen balioen analisisia.

Laburpena

Hezkuntza on batean balioak ezinbestekoak dira, pertsonak horrela baino ez baitira benetan hazten. Balioetan heztea beharrezkoa da erronka berriak bere gain hartu eta konpromiso aktiboa hartzeko gai diren herritarrak hezteko, mundu askoz bidezkoagoa, inklusiboagoa eta kulturartekoa eraikitzeko.

Ondoren aurkezten den lana balioei buruzkoa da. Zehatzago izateko, hurrek egunero eskolan erabiltzen dituzten materialek transmititzen dituzten balioei buruzkoa. Honek, **helburu** nagusi bat izan du lan osoan zehar hari izan dena: gaur egungo Haur Hezkuntzako geletan aurki daitezkeen materialak zer balio transmititzen dituzten frogatzea.

Ikerketa hau aurrera eramateko, **metodo** kualitatiboan oinarritutako ikerketa burutu da: materialak hautatu, behatu eta analizatu, eta azkenik, ebaluatuz. Material guztiak zehatz-mehatz aztertu eta egileen teoriekin egiaztatu ondoren, hauxe da lortu den **emaitza** nagusia: nahiz eta transmititzen diren balioekiko kezka antzeman den, materialei dagokienez, kezka hori ez da hauteman. Aztertu diren material guztietatik, erdiek baino gehiagok balio negatiboak transmititzen dituzte. **Ondorioz**, azterlan honek agerian uzten du ikuspuntua aldatu beharra dagoela balioetan oinarritutako hezkuntzan.

Hitz gakoak: Hezkuntza | Balioak | Tolerantzia | Inklusioa | Materiala | Sozializazioa

Educación en valores: análisis de los valores que transmite el material escolar.

Resumen

En una buena educación los valores son fundamentales, porque las personas sólo así crecen realmente. Educar en valores es necesario para que los ciudadanos sean

capaces de afrontar retos y comprometerse en la construcción de una sociedad mucho más justa, inclusiva e intercultural.

El trabajo que se presenta a continuación está dedicado a los valores. Más concretamente, sobre los valores que transmiten los materiales que los niños y niñas utilizan diariamente en la escuela. La investigación ha tenido como objetivo principal, a lo largo de todo el trabajo, demostrar los valores que transmiten los materiales que se pueden encontrar en las aulas de Educación Infantil.

Para llevar a cabo esta investigación se ha llevado a cabo una investigación basada en el método cualitativo: selección, observación y análisis de materiales y evaluación. Tras un análisis exhaustivo de todos los materiales y su verificación con las teorías de los autores, el principal resultado es que, si bien se ha detectado una preocupación por los valores que se transmiten, en cuanto a los materiales se refiere no se ha detectado dicha preocupación. De todos los materiales analizados, más de la mitad transmiten valores negativos. En consecuencia, este estudio pone de manifiesto la necesidad de cambiar el enfoque en la educación en valores.

Palabras clave: Educación | Valores | Tolerancia | Inclusión | Material | Socialización

Education in values: analysis of the values transmitted by the school material.

Abstract

In a good education, values are fundamental, because only in this way do people really grow. Educating in values is necessary so that citizens can face challenges and committing themselves to the construction of a much more just, inclusive and intercultural society.

The work that follows is dedicated to values. More specifically, about the values transmitted by the materials that boys and girls use daily at school. The main objective

of the research has been, throughout all the work, to demonstrate the values transmitted by the materials that can be found in Early Childhood Education classrooms.

To carry out this research, an investigation based on the qualitative method has been carried out: selection, observation and analysis of materials and evaluation. After an exhaustive analysis of all the materials and their verification with the theories of the authors, the main result is that, although a concern about the values that are transmitted has been detected, as far as the materials are concerned, this has not been detected. Of all the materials analyzed, more than half transmit negative values. Consequently, this study highlights the need to change the focus on values education.

Keywords: Education | Values | Tolerance | Inclusion | Material | Socialization

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	6
2. Metodologia	7
3. Marko teorikoa	10
<i>Balioen transmisioa</i>	<i>10</i>
<i>Curriculum ofiziala</i>	<i>12</i>
<i>Curriculum ezkutua.....</i>	<i>14</i>
<i>Dimentsioen deskribapena</i>	<i>16</i>
4. Testuingurua.....	22
5. Ikerketa	26
6. Ondorioak	37
7. Bibliografia	41
8. Eranskinak	44

1. Sarrera

Egungo gizartea etengabeko aldaketak jasaten ari da, eta honek, balioen pertzepzioa une oro aldatzerantz eramaten du. Haurrei transmititzen zaizkien balio horiek beren etorkizuna baldintzatuko dute modu batean edo bestean, eta horregatik, arreta berezia jarri behar da eskoletan erabiltzen den materiala hautatzeko orduan. Horregatik, bai gaur egungo irakasle, eta baita etorkizuneko irakasleen formakuntzan balioetan oinarritutako hezkuntzak garrantzi berezia hartu beharko luke, gaiaren garrantziaz eta horren ondorioez jabeturik.

Balio eta materialei buruzko zoko guztiak zehatz-mehatz aztertuko dira hurrengo lanean: lehenengo bi kapituletan bai metodologia eta baita helburuak zehaztuko dira; hirugarrenean, berriz marko teorikora joko da, autoreen eta curriculumaren iritzia ezagutzeko; ondoren, laugarren kapituluan testuingurua ezagutuko da, gaur egungo egoera; bostgarren kapituluan, berriz, lanaren muinean murgilduko da, analisisian; eta azkenik, seigarren kapituluan, lana egin ondoren ateratako ondorioak eta zailtasunak deskribatuko dira.

Proiektu honen helburu nagusia 2020-2021 ikasturtean ikasgelan erabiltzen diren materialek transmititzen dituzten balioaz jabetzea da: materialak, inplizituki ala esplizituki, mezu positibo ala negatiboren bat transmititzen duten ala ez jakitea. Mezu hauek aztertu, semaforo baten bitartez klasifikatu eta ondoren ondorioztatzeko.


Helburu hau betetzeko, ordea, beste hauek bete beharko dira: a) balioetan hezteak ikasgelan duen zeregina identifikatzea. Zenbait ikerketen arabera, kalitateko balioetan oinarritutako hezkuntzak, ikasleen izaera eraikitzeaz gain, ikaskuntza eraginkorra ere sustatzen du, emaitza akademikoak hobetuz. b) Balio positibo eta negatiboak izendatzen eta bereizten jakitea. Hau funtsezkoa izango da sailkapena eta ondorioak ateratzeko. Balio positibo eta negatiboak mezuaren arabera izango dira, baina hauek sailkatzeko irizpidea zein izango den aztertu beharko da. c) Haurrek, jolasteko ala

erabiltzeko materiala hautatzeko orduan zein kriterio erabiltzen duten behatzea. Nahiz eta materialek mezuak helarazi haurrei, hauek ohartzen diren, ala ez zaien inporta eta berdin-berdin erabiltzen duten materialaren erantzuna jakingo da. d) Irakasle/ tutoreek beren gelako materiala hautatzeko orduan, material hauek helarazten dituzten mezu eta balioak kontuan hartzen dituzten ala ez antzematea. Irakaslearen papera funtsezkoa izango da lan honetan. Izan ere, hauen esku uzten da, maila batean, materialen aukeraketa.

2. Metodologia

Aipatutako helburuak betetzeko, metodologia kualitatiboa erabiliko da. Metodologia hau honetan datza:

1. Figura: Lana burutzeko erabilitako metodologia.



Iturria: Norberak egin.

Errenteriako eskola publiko bateko 4 urteko gela izan da aztergai nagusia lan hau aurrera ateratzeko. Errenteria Gipuzkoan dago kokatuta eta 39.540 biztanle inguruz dago osatuta. Ikertu den gela 19 haurrez (10 mutil eta 9 neska) eta tutore batez dago osatuta, eta haur horietako bik behar bereziak dituzte.

Prozedurari dagokionez, lan hau aurrera eramateko lehendabizi, balioen ezaugarriak, dimentsioak eta positibo eta negatiboak zeintzuk diren zehaztuko da. Ondoren, aipatutako 4 urteko gelako materialen azterketa egingo da; gelan erabiltzen diren jolas, ipuin, puzzle eta beste hainbat arakatu, eta hauek sailkatuz.

Material horietaz baliatuz, azterketa, eta ondoren, ebaluaketa bat egingo da. Materiala aintzat hartuz, positiboa ala negatiboa den aztertuko da eta honen zergatia eta hurrei zein ideia transmititzen dizkieten argudiatuz.

Honetaz gain, eskolako materialaren analisi sistematikoa ere erabiliko da. Izan ere, materiala ahalik eta objektiboen ebaluatzeko fitxa bat sortu da, non, praktikaldian, eskolako material bakoitzarekin fitxa berdina bete zaion. Horrela, hautatutako material bakoitzak bere fitxa izango du, ondoren ebaluazioa errazagoa eta objektiboagoa izan dadin. Gainera, fitxa honen bidez, balioen eta haurren gustuen arteko lotura ere antzemango da. Hau da, balio positiboak helarazten dituzten materialak ea haurrek gehiago erabiltzen dituzten ala faktore hau ez duten kontuan hartzen.

Amaitzeko, eskolan aztertutako materiala sailkatzeko metodo bat ere erabiliko da. Aurretik aipatutako fitxez baliatuko gara formula hau aurrera eramateko. Euskarri bat diseinatuko da semaforo itxura duena, non material bakoitzak transmititzen duen balio motari kolore bat emango zaion; kolore gorria balio negatibo ala intoleranteei emango zaie, laranja, balio onak transmititzen ez dituen materialei baina negatiboak ere ez direnei emango zaie, eta azkenik, kolore berdea, ideia positiboak eta tolerantziakoak transmititzen dituztenei emango zaie.

Ondorengo taulan ikus daiteke azterlan hau burutzeko erabili den materiala, bere ezaugarri batzuekin:

1. Taula: Analisia egiteko aztertu diren materialen datuak.

Izena	Material mota	Argitaratze- urtea/argitaletxea	Gomendatutako adina
Montessori materiala	Zenbakiak ikasteko	-	4 urtetik aurrera
Familias de 7 países	Karta-jolasa	1965 (Fournier)	3 urtetik aurrera
Pirritx eta Porrotx. Familien karta-jokoa	Karta-jolasa	2005 (Elkar)	5 urtetik aurrera
Pirritx eta Porrotx. Familia milakolore	Puzzleak	2007 (Elkar)	4 urtetik aurrera
<i>Elmer</i>	Ipuina	2012 (Erein)	4 urtetik aurrera
<i>Edurnezuri</i>	Ipuina	2010 (Ttarttalo)	
<i>Polita</i>	Ipuina	2019 (Denonartean)	4 urtetik aurrera
<i>Errauskiñe</i>	Ipuina	2010 (Ttarttalo)	4 urtetik aurrera
Xango	CD-ROMa	Urtxintxa	5 urtetik aurrera
Inbutuak, botilak, ontziak...	Esperimentatzeko materiala	(Etxetik ekarria)	-
Condis. Piezas magnéticas	Eraikuntzarako materiala	Condis (2019)	2 urtetik aurrera
Barbie (+ bere autokarabana)	Panpinak	Mattel (2015)	3 urtetik aurrera

Discover with Dex. 1	Ingeleseko materiala	Harper Collins	4 urte
Ene kantak	Abesti eta bideoak	Ene kantak	3 urtetik aurrera
<i>Ahate itxusia</i>	Abesti musikala	-	3 urtetik aurrera

Iturria: Norberak egina

Taula honen bidez datu eta zehaztapen gehiago izango dira materiala ebaluatzeko orduan. Goraipatu beharra dago, gainera, aztertutako material gehiena euskarazkoa izan dela.

3. Marko teorikoa

Balioen inguruan asko hitz egin da azken hamarkadan. Eguneroko bizitzan oso presente daudenez, bizitutakoaren arabera hainbat aurreiritzi izan ohi dira, ondoren baloreen inguruan hitz egiteko erabiltzen ditugunak. Kapitulu honetan egile desberdinek hainbat azterketa egin ondoren ondorioztatu dituzten ideiak azalduko dira, beti ere lan honetako gaia ardatz duelarik.

Balioen transmisioa

Balioetan oinarritutako hezkuntzak indar handia hartu du azken aldi gure gizartean, eta noski, eskolan ere bai. Gaur egun, hurrek ia denbora gehiago igarotzen dute eskolan etxean baino, eta horregatik, eskolak oso rol garrantzitsua izango du balioak transmititzeko orduan. Aranguren (2002) heziketa eta konpromisu hitzak lotzea beharrezkoak ikusten ditu baloreak transmititzeko orduan, eta honela definitzen ditu: hezte pertsona bakoitzaren gaitasun susmagaitzak sortzen laguntzea da, eta aldiz, konpromisua, pertsonak bizi duen errealitatearekin duen lotura estua adierazten du konpromisoak.

Eskolaren benetako funtzioa baloreak transmititzeko orduan zein den jakitea funtsezkoa izango da ondoren balioen ebaluazioa behar den bezala egiten den ala ez zehazteko.

Batetik, Granadosek (2003) baieztatzen du eskolaren funtzioetako bat biztanle libre, kritikoa, irudimentsu, parte-hartzaile, solidario, zibiko, langile, etab. izango direla ziurtatuz. Baina, Duart-ek (2003) baieztatzen du balioak ez direla irakasten; ikasi egiten direla, balioetan heztea ez omen da jarrerak modelatzea. Beraz, balioak ikasi egiten badira, eskolaren funtzioa hori posible den uneak errezetarena izango da.

Bestetik, eskolaren, eta orokorrean, hezkuntzaren funtzio nagusia sozializatzailarena da. Hau da, eskolak, erakunde gisa, ikasle batek bere inguruneko jarraibide soziokulturalak bereganatzen lagundu behar du. (Granados, 2003).

Sozializatzeko orduan, beraz, funtsezkoa da transmititu nahi diren ideia eta balioak argi izatea. Gizarte bakoitzak, bere historiaren une jakin batean, "aukeratzen" ditu beren beharrak asetzeko egokienak iruditzen zaizkion ideiak; eskola, bere transmisioaz eta garapenez arduratzen den erakundea izanik. (Parra, 2003).

Durkheim-ek (1976) "sozializazio" jarduera eta gizarte jarduera bultzatzen du. Sozializazio gisa, nortasun indibidualaren eraikuntza prozesua eta gizarte baten antolaketa aipatzen ditu; jarduera sozial gisa, berriz, koherentzia soziala osatzen duten pentsamolde desberdinak. (hemen aipatuta: Echevarria, 2003).

Brezinkaren (1990,121) arabera, balioen ikaskuntza ahalbidetzeko, eta hau eraginkorra izan dadin, hiru baldintza nagusi bete behar dira: batasuna hezkuntza eragile nagusien artean (familia, eskola eta estatua); beren ohituren iraunkortasun eta elkarbizitzen dugun biztanleen adibide ona. (Brezinkaren, 1990; hemen aipatuta: Parra, 2003).

Eskolak sozializatzeko helburua duen momentutik, konturatu gabe bada ere, baloreen transmisioan jardungo du. Eskolak sozializazioa aurrera eramateko, baloreen beharra du. Eta alderantziz, baloreen bitartez sozializazioa ahalbidetzen da.

Illo beretik, balioak historian zehar gertatutako aldaketan eta eraldaketan ondorio dira, esanahi berezi batekin sortzen dira eta garai desberdinetan aldatu, moldatu edota

desagertzen dira. Balioak ez dira errealak, berez ez dute inolako baliorik, pertsonak ematen diete balio jakin bat, sortzen duten atseginarekin edo atsekabearen arabera. (Sandoval, 2007) Oraindik haratago joaten da Guervilla (hemen aipatua: Arana eta Batista, 1999) eta balioak oso subjektiboak direla baieztatzen du.

El valor, como el poliedro, posee múltiples caras y puede contemplarse desde variados ángulos y visiones, desde una posición metafísica, los valores son objetivos: valen por sí mismos; desde una visión psicológica, los valores son subjetivos: valen si el sujeto dice que valen; y desde el aspecto sociológico, los valores son circunstanciales: valen según el momento histórico y la situación física en que surgen. (Guervilla, 1994: 32).

Balioek ikuspuntu ezberdinak izango dituztela baieztatzen du Guervillak aurreko zitan, hainbat faktoreren arabera, eta horregatik, aldatzen joan behar dute gizartea eraldatzen doan moduan.

Curriculum ofiziala

Eskolako materiala aztertzen eta ebaluatzen hasi aurretik, garrantzitsua izango da gaur egungo Curriculum ofizialak balioen inguruan aipatzen duena ezagutzea. Lan hau Errenteriako eskola bateko praktikan oinarrituko denez, Euskal Curriculum-a aztertuko da.

1970eko Hezkuntza Lege Orokorrak ezarritako Oinarritzko Hezkuntza Orokorra berrituz zen 80ko hamarkadaren hasieran. Lehen aldiz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bere gain hartu zituen hezkuntza gaitasun autonomikoak eta proposatu zuen curriculum ofiziala Euskadiko Autonomia Erkidegoarentzat. (Granja, 2008)

Horrenbestez, ekitatean eta justizia sozialean oinarritutako planteamendu etiko batetik abiatuta, aukera-berdintasunerako bermea da Haur Hezkuntza, inolako diskriminaziorik egiten ez duena ezaugarri pertsonalengatik, nortasun kulturalarengatik, genero-nortasunagatik edo sexu-joera eta -nortasunarengatik. Izan ere, diferentzia ekonomikoak, sozialak, hizkuntzakoak, kulturalak eta pertsonalak gainditzea da haren xedeetako bat. Hori horrela izanda, inklusioaren printzipioa bete behar dute. (237/2015 DEKRETUA, 2016).

Hitzorduan irakur daitekeen moduan, euskal dekretuak inklusioaren printzipioa bete behar dela argi uzten du, diskriminazioa guztiz baztertuz eta aukera-berdintasuna eta justizia sozialean oinarrituz.

Balioen araberako hezkuntza beharrezkoa dela baieztatzen du 237/2015 Dekretuak (2016). Funtsezko printzipio, eskubide eta askatasunak aipatuz eta errespetuzko, tolerantziatzeko eta inor ez baztertzeko jarrerak bultzatuz.

Curriculumean behin eta berriz aipatzen da hezkuntza inklusiboa. Dokumentuan bertan aniztasunaren adierazpen guztiak (hizkuntza, kultura, gaitasunak, sexu-orientazioa, generoa eta baliabide sozioekonomikoak) kontuan hartzen dituen hezkuntza moduan definitzen dute (237/2015 DEKRETUA, 2016).

Aipatutako aniztasunari erantzuteko, berriz, Euskal Dekretuak hainbat neurri zehazten ditu; horien artean aipagarriena: "Hezkuntzako esku-hartzeak ikasleen aniztasuna aitortu eta errespetatu behar du. Halaber, ikasle guztien oinarrizko konpetentzien garapen gorena lortzera bideratutako arreta espezializatua bermatu behar du" (237/2015 DEKRETUA, 2016).

Aniztasunaren barnean, kultur-aniztasuna ere jorratzen da 237/2015 Dekretuan (2016). Bertan, askotariko gizarte eta kulturak aipatzen dira, non hauek, eskoletan, ikuspegi ireki eta integratzaile batetik ezagutu behar diren. Honela, hurrek onarpen, errespetu eta balioespeneko jarrerak barneratuko dituztela baieztatuz. Gainera, kultura-aniztasunaren bidez, gizarte eta ohitura ezberdinak ezagutzeaz gain, pertsona gisa hezitza laguntzen du.

Aniztasunaz gain, hizkuntzaren inguruan ere aipamenak egiten ditu Curriculum-ak. Zehazki, elebitasuna funtsezko elementutzat hartzen du gizartearen kohesioa bete dadin. (237/2015 DEKRETUA, 2016)

Ildo beretik jarraituz, Granjak (2008) ondorioztatzen du Euskal Herriak duen kultura propioa ezin dela alde batera utzi eskola eta curriculumaz hitz egiten ari garenean.

El currículo vasco no es sólo un proyecto cultural. Debe coexistir con un proyecto social que sea el motor de las transformaciones para promover el cambio social. De esta manera la sociedad vasca decide en cada momento los rasgos que

definen las peculiaridades sociales y culturales que configuran el currículo vasco.
(Granja, 2008: 146)

Sexu eta genero nortasunari dagokionez, 237/2015 dekretuak (2016) argi uzten du Haur Hezkuntzako etapan hasten dela sexu eta genero nortasuna eraikitzen, eta horregatik, beharrezkoa dela batetik, eskolak esku-hartze plan bat egitea, eta, bestetik, hezitzaileak haurrei sexualitatea bizitzeko, deskubritzeko, topatzeko eta gozatzeko aukera emateko tresnak izatea eta menperatzea.

Interesgarria da ikuspegi konstruktibistek curriculumaren inguruan duten ikuspuntua. Izan ere, Diazek (2008) berreskuratzen duen moduan, Bloomek (1977) 50.hamarkadaren hasieran bere lehen "Ikaskuntzaren taxonomia" osatu zuen; non, bertan, helburu psikomotor, afektibo eta kognitiboak zehazten ziren. Nahiz eta bere garaian aitortpena jaso, helburu horiek praktikara eramateko eta curriculum batean zehazteko orduan polemika handia sortu zen, hauek ebaluatzeko orduan subjektibotasuna oinarri izango zelakoan. Hor dago benetako zalantza: baloreetan oinarritutako hezkuntza ebaluatu eta kalifikatu egin behar al da?

Ebaluazioarekin jarraituz, nahiz eta curriculumak honen inguruan aipamenak egin, balioei dagokienez ez dago zehaztapenik. Ebaluazioa lan konplexu eta garrantzitsua da; Ebaluatzerakoan, jarrera, predisposizio nahiz aurreiritzi multzo bat jartzen da jokoan horregatik, ahalik eta oreka handienarekin jokatu behar da. Ebaluazio prozesua oraindik eta garrantzitsuagoa izango da balioen eta arauen ikaskuntzak ebaluatzerakoan.

Balioetan oinarritutako hezkuntza beti egin izan da modu inplizituagoan irakasgai bakoitzaren curriculumaren barruan. Orain, askoz modu esplizituagoan egin behar da, eta, beraz, beharrezkoa da irakasleak prestatzea, ikasleen balioetan eta jarreretan oinarritutako hezkuntzara bideratutako esku-hartze pedagogikoa ahalbidetzen duten gaitasunak garatzeko. (Ballester, 2009).

Curriculum ezkutua

Curriculum ofizialak baloreen inguruan aipatzen duena ezagutu da, baina zer gertatzen da benetan ikasgeletan? Horretan datza curriculum ezkutua; badira ezkutuko ala ezezagunean murgilduriko errealitateak, teoriaz, ikusten dugunaz eta uste dugunaz haratago doazenak. (Sacristan, 1987). Sacristanek berak ondorengo moduan definitzen du curriculum ezkutua:

Entiendo que es un conjunto de actividades y contenidos de enseñanza-aprendizaje no intencionadamente planeados o abiertamente reconocidos, que socializan a los individuos en la aceptación básica de las estructuras sociopolíticas y culturales dominantes. Considero que el currículum oculto es, también, el conjunto de efectos producidos como consecuencia del proceso anterior. (Sacristan, 1987:33).

Kontzienteki plangintzatu gabeko jarduera eta edukien irakaskuntza moduan definitzen du curriculum ezkutua, eta prozesu honen ondorioz sortzen den efektuen multzo gisa.

Diazek (2005) dioten bezala, baloreen ikaskuntzak (bere izaera afektibo eta jarrerazkoan), orokorrean, erlazio estua izan ohi du Curriculum ezkutuarekin. Honek zerikusi handiagoa du egiten denarekin, esandakoarekin baino. Diazek berak adibidetzat jartzen du ondorengoa: eskola batek argi izan ditzake transmititu nahi dituen balioak: tolerantzia, besteekiko errespetua, demokrazia, etab. baina, aldi berean, modu intolerantean portatu daiteke irakasle bat, modu autoritarioan jokatzuz. Adibide honetan teoriarik eta praktikan egiten dena desberdina izango da.

Curriculum ezkutua, beraz, modu inkontzientean egiten da, eta gainera, nahiz eta ez egon inon idatzita, askotan curriculum honek zeregin nabarmena du irakasleak eta ikasleak berak guztiz ohartzen ez diren esanahi eta balio batzuen eraketan.

Curriculum proiektuak, irakaskuntzaren edukiak, material didaktikoak, ikastetxe eta institutuen antolaketa ereduak, ikasleen eta irakasleen jokabideak, etab. ez dira eta neutraltzat har ditzakegun gaiak, ideologiak eta gizartearen beste dimentsio batzuetan gertatzen direnak alde batera utzita, hala nola ekonomikoa, kulturala eta politikoa.

Aitzitik, hezkuntzaren esparruan hartzen diren erabakien eta hemen gertatzen diren portaeren zati handi bat gizartearen beste esparru horien gertaerek eta berezitasunek baldintzatzen edo erdiesten dute. (Torres, 2005).

Interesgarria izango litzateke ikertzea, esparru psikologikotik, nola gertatzen den balioen barneratzea maila inkontzientean. Hau betetzeko hezkuntza prozesuan baldintza egokiak sortu behar dira ikaslea ikasle gisa ez ezik pertsona oso gisa jokatzera ohitzeko ere. Zentzu horretan ezkutuko curriculumak edukirik gabeko balioak erregistratzen ditu, hezkuntza erakunde baten bizitzan egiteko modu desberdinetan eta aurrekoetan modu inplizituan bizitzen den zerbait gisa. Hezkuntza prozesuan komunitatea edo dimentsio soziala aitortzeko beste modu bat da.

Dimentsioen deskribapena

Baina zein dira benetan eskolan transmititu behar diren oinarrizko balioak? Parraren (2003) arabera honen erantzuna hartutako jarrera ideologikoaren arabera izango da. Argi dago balioak subjektiboak direla, eta beraz, pertsona orok iritzi desberdina izango duela ideia baten aurrean. (Parra, 2003).

Valeroren (2003) ustez, eskolaren eta hezkuntzaren helburua ez da ikasleei balio jakin batzuk inposatzea. Ezta arau zurrun batzuk ezartzea ere. Hezitzaileak balio batzuk proposatu behar ditu, baina beti ere, ikasleekiko errespetu handienarekin fanatismoa edo mentalizazioa dakarren guztia saihestuz.

Balioa lortzeko estrategia bat behar da, ez baita irakaskuntza hutsa, baizik eta ikaskuntza bat. Irakasleak irakats dezake, baina ikasleak arreta jartzen ez badu edo irakatsitakoa jasotzen ez badu, ez da ikasketarik emango. (Valero, 2003).

Jarrerak eta portaerak sortu nahi baditugu, ez da nahikoa informazioa ematea, baizik eta kontuan hartu behar dira jarrerari lotutako hiru alderdiak: kognitiboa (gauzak jakitea) afektiboa (gauzak bizitzea) eta jarrerakoa (gauzak egitea). (Paniego, 2000).

Ezinezkoa da balioetan heztea balio horiek ez baditu sinisten transmititu behar duen pertsonak. Zentzu horretan, ezinbestekoa da irakasleek beren zentroan landu eta

transmititu nahi dituzten balioak adostea, kontzientzia sustatuz eta jarrerak aldatzeko prozesuak bultzatuz. (Medrano, 1999). Medrano berak (1999) ondorengo aldatu behar dela aipatzen du hori guztia gauzatzeko: metodologiak aktiboa, parte-hartzailea eta konstruktibista izan behar du; eskolako antolaketa demokratikoa izan behar da; eta ebaluatzeko orduan ikaslearen gaitasuna eta ahalegina hartu behar dira kontuan.

Zein dira, ordea, balioen ezaugarriak? Zerk egiten du zerbait baliotsua? Sandovalék (2007) ondorengo irizpideen baitan sailkatzen ditu balioak: a) Iraunkortasuna: balioak bizitzaren mailan islatzen dira. Balio batzuk iraunkorragoak dira beste batzuk baino. b) Integritate: balio bakoitza abstrakzio integral bat da, ez da zatitzekoa. c) Malgutasuna: balioak pertsonen beharren eta esperientzien arabera aldatzen dira. d) Asetzea: balioek gogobetetasuna sortzen dute egiten dituzten pertsonengan. e) Polaritatea: balio oro zentzu positiboan eta negatiboan agertzen da; balio orok kontrabalioa du. f) Hierarkia: balio batzuk goi-mailakotzat hartzen dira (duintasuna, askatasuna), eta beste batzuk, berriz, beheragokotzat (oinarrizko edo bizitzako beharrekin lotzen direnak). g) Transzendentzia: balioek plano zehatza gainditzen dute; zentzua eta esanahia ematen diete giza bizitzari eta gizarteari. h) Dinamismoa: balioak desagertu egiten dira.

Paniegok (2000) ondorengo balio-kategoria ezartzen du, gizakiaren dimentsioetatik abiatuta:

- Gizarte-errealitateak: Elkarren artean lotutako hainbat gizarte-egoera (garapena, ekologia, bakea...) lantzeko beharra.
- Sozializazio bitartekoak: Gizarte-errealitateen maila landu nahi bada, ulertu behar da sozializazio-bitartekoek sortutako ideietan oinarritzen direla, eta horrela jasotzen dituzten balioekiko kritikoa izaten irakatsi, sozializazio-eragileak (familia eta eskola bereziki) koordinatzea eta sozializazio-bitartekoen alderdi positiboa hautatzea ikasgelara hurbiltzeko asmotan.
- Gaitasun instrumentalak
 - o Kritikotasuna eta desobedientzia modu konstruktiboan garatzea

- Gatazkak modu erregularrean konpontzeko gaitasuna
 - Erabakiak modu arduratsuan, demokratikoan eta kontzientean hartzen ikasteko gaitasuna
 - Aurreiritziak gainditzeko gaitasuna garatzea
- Taldekako jarrera kooperatiboak: Hurbilekoekin lankidetzan jarduten badakigu, beste maila batzuetan garatu nahi denarekiko koherentzia ikusiko dugu. Halaber, erreferentzia-talde bat izango dugu, ideia eta balio berriak eraikitzen irekia.
 - Garapen pertsonala: Aurreko guztia gaitasun pertsonal jakin batzuetan oinarritzen da (autoezagutza, autokontrol emozionala, autoestimua...)

Soilik dimentsio hauen guztien garapen harmonikoari esker, pertsonak jarrera eta jokabide solidarioak garatu ahal izango dituzte.

Quintanak (1992) ondorengo sailkapena egiten du balioei dagokienez: (hemen aipatua: Parra, 2003)

- Balio pertsonalak: zorientasuna, anbizio osasuntsua, kompetentzia pertsonala
- Balio moralak: fideltasuna, esfortzua, egia, ardura, erantzukizuna.
- Balio sozialak: maitasuna, laguntasuna, familia.
- Balio transzendentek: unibertsoaren eta giza bizitzaren enigmekiko sinesmenak lantzea eta errespetuzko harridurarako jarrera.

Argi geratu da balioak subjektiboak direla, baina gaur egun, Curriculumean ikusitakoa ikusita eta hainbat autorek esandakoa ulertuta, guztiak kontuan harturik, eskolan transmititu behar diren balioak ondoren aipatuko direnak izango dira. Baina horretan sartu aurretik, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren bigarren artikulua esaten duena aipatzea lagungarria izango da ondorengoa ulertzeko:

Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomia maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik. (Nazio Batuen Batzar Nagusia, 1948)

Beraz, aipatutako guztia kontuan hartuta, egile desberdinen iritziak erreflexionatuta eta curriculumak esandakoa argi izanda, ondorengo balioak dira, eskolak transmititu beharko lituzkenak:

Lehenik eta behin, familia-aniztasuna. Hurrei familia mota ezberdinak existitzen direla transmititu behar zaie, eta guztiak zilegi direla. Gaur egun, familia ez da hautematen, ez eta bizi ere, erakunde uniforme gisa; askotariko familia egiturak ezagutzen ari da gizartea, eta pixkanaka lortzen ari den eredu-aniztasunak gizarte-errealitate horri buruzko kontzientziazioa eskatzen du, gizarteratzeak errealitate guztiak kontuan har ditzan. Horrela ikasleak eraldaketarako eragile gisa joka dezake ekitate eta inklusio maximoa lortu nahi duen gizartean. (Cristobal, 2014).

Ondoren, genero-aniztasunean lanketa egiteak ere, sexualitate eredu normatibo eta nagusi batekin apurtzea bilatzen du. Eredu honek pertsonen bizitza eta, beraz, gizartearen bizitza egituratzen duten estandar eta praktika batzuk ditu, non, hauek gainditzen ahalegintzen bada eskola deskubrimendurako, konstruktiorako eta garapenerako espazioa bihurtuko da. Pertsonen identitatea eraikitzea sozializazio-jarduera bat da, gizarte-koherentzia osatzen duten pentsamendu-moduak biltzen dituen. Egoera horrek zuzenean eragiten dio eskola-eremuari, eta leku hori subjektuen genero-identitatea aurkitu, eraiki eta garatzeko gune bihurtzen du. (Stramiello eta Ferreyro, 2011; hemen aipatua: Gonzalez, 2017).

Errespetua guztiz funtsezkoa eta oinarrizkoa izango da etorkizun batean beste pertsonekin elkar-bizitzeko. Norbait errespetatzen denean pertsona bera bezain baliotsua dela ikusten dugula erakusten ari gara. Horregatik, errespetu horrek harreman positiboak sortzen ditu tratatu duinarekin. Desberdintasunekiko tolerantzia eta errespetua, gizarte osasuntsuago eta integratzaileago baten oinarri izango da. (del Prette et al. 2013) Kulturak, jatorri, ohitura eta sinesmenak aipatzen ditu. Azken urteetan migrazioa nabarmen igo da, eta fenomeno hau eskoletan islatua ikus dezakegu. Kultur-aniztasuna lantzeak beraz aukera bikaina eskaintzen du elkarreragin positiboak edukitzeko kultura anitzeko ingurune batean. Senitartekoek eta irakasleek esperientzia gogoangarrien

oinarria finkatu dezakete lehenengo urteetan. Esperientzia hauek kultura aniztasuna ulertzen eta balioesten lagun dezakete. (Pacheco, 2011).

Ekologia eta naturarekiko errespetua txikitatik lantzea ere oso positiboa izango da. Lurrak kontinente guztietan etengabe ustiatzen ditugun baliabide naturalak eskaintzen ditu. Baliabide horietako asko ez dira berriztagarriak, eta, beraz, erritmo horretan jarraituz gero, agortu egingo dira. Horregatik, txikitatik ingurumena errespetatzen eta planeta zaintzen hezteak ezinbestekoa da kontzientzia ekologikoa garatzeko eta ikasle zein helduek neurriak har ditzakete egunez egun kutsadura murrizteko edo klima aldaketa geldiarazteko. (Camáñez, 2016).

Hezkidetzak izango da eskolan transmititu beharreko beste balio bat; Haur hezkuntzako adin tartearen hasieran, haurrek ez dute aurreiritzirik izaten, eta, beraz, berdintasunezko irakaskuntza ezartzeak eragina izango du haren garapenean, generoaren ikuspegitik. Horrek gizalegezko portaera berdintasunezko baldintzetan eta guztiontzako ikuspegi bat barneratzen laguntzen du, hau da, arduraz jokatzeko bizi garen gizartean, non gizon edo emakume izateagatik ez baita gizarte-rol jakin batzuk ezarri behar. (Cabrera et al. 2018).

Balioen ezaugarriak, dimentsioak eta hauen garrantzia aztertuta, azken galdera bati erantzun beharra dago: nola transmititu behar dira balioak? Honi erantzuteko, aurretik, balioak eratzeko prozesua ulertu behar da. Honek hiru une ditu: hautapena, estimazioa eta jarduketa. (Raths, 1967; hemen aipatua: Parra, 2003). Horietako bakoitzak baldintza jakin batzuk ezarri beharko ditu. Hautaketa; askatasunez egina, zenbait alternatiben artean egina eta aukera bakoitzaren ondorioak aztertu ondoren egina; estimua, hautaketaz ohartzea eta harekin zorientsu izatea eta publikoki baieztatzeko prest egotea; Jarduera, egindako hautaketaren arabera jardutea eta bakoitzaren bizitzan behin eta berriz aplikatzea.

Argiago ikusteko, ondorengo taulan bereiziko dira balio positibo eta negatiboak, eta hauek zergatik landu beharko liratekeen eskolan:

2. Taula: Balio positiboak zeintzuk diren eta honen zergatia.

BALIO POSITIBOAK	ZERGATIK?
Familia aniztasuna	Eskoletan familia mota ezberdinak aurki daitezkeenez, inklusioa bermatzeko, beharrezkoa da familiaren gaia kontuan hartzea.
Genero-aniztasuna	Inongo aurreiritzirik gabe haurrak libreki hautatzeko eta esperimintatzeko beren izaera.
Errespetua	Elkarbizitzarako funtsezkoa. Harreman positiboak sortzera bultzatzen duelako.
Kultur aniztasuna	Eskoletan migrazioa igotzen doala ikus dezakegu, beraz, guztiak eroso eta aukera berdinekin sentitzeko, kultur aniztasuna lantzea funtsezkoa izango da.
Ekologia	Gure lurak eskaintzen dizkigun baliabide naturalak estimatzeko eta ez agortzeko.
Hezkidetza	Nortasunaren garapen osoa bermatzen du genero-oztoporik gabe, sexismoa eta generoen arteko gizarte-desberdintasuna zuzenduz.
Enpatia	Bestea baten lekuan jartzea lagungarria da gizarte-harremanak eusteko, besteekin konektatzeko eta gizartera egokitzeko.

Iturria: Norberak egina.

3. Taula: Balio negatiboak zentzuk diren eta honen zergatia.

BALIO NEGATIBOAK	ZERGATIK?
------------------	-----------

Lehiakortasuna	Autoestimurako kaltegarria.
Intolerantzia	Gustuko ez den zerbaiten aurrean intolerantziako jokabideek ez dute onurarik ekartzen, guztion kalterako izaten da.
Berekoikeria	Jokabide antietiko eta moralen sustrai nagusia.
Gorrotoa	Zorigaizto izateko soilik balio du besteak edota norbere burua gorrotatzeak.
Biolentzia	Min fisikoarekin ez delako ezer konpontzen, hitzezko komunikazioa da bidea.
Estereotipoak	Bizikidetzaren soziala baldintzatzen dutelako: beste gizaki batzuekiko indarkeria eta eraso erabiltzeko zentzugabekeria bihurtu arte. Autoestimuan kalte handia ekarri lezake.

Iturria: Norberak egina.

4. Testuingurua

Edukiak aztertzen hasi aurretik, testuingurua ezagutzea funtsezkoa izango da benetan gaur egungo egoeraren beharrak ezagutu, eta ondoren, asetzeko. Beraz, aurretik aipatutako baloreen inguruko datu errealak aztertuko dira ondorengo kapituluan. Datu horiek ondoren aztertzeko, besteak beste; Errenteriako kanpotarren kopurua, familia moten datuak, zenbait hutsune ala behar gai jakin batzuek lantzeko orduan, mota desberdinetako aniztasuna, edota berdintasuna lantzea beharrezkoa dela erakusten duten grafikoak aztertuko dira. Zein da, beraz, gaur egun Errenterian edota inguruan dagoen errealitatea?


4 .Taula: Errenteriako atzerritarren bilakaera kopurua.

Urtea	Atzerritarren %-koa
2003	1,72%
2004	2,04%
2005	2,49%
2006	4,20%
2007	5,18%
2008	5,88%
2009	6,50%
2010	6,92%
2011	7,31%
2012	7,39%
2013	7,63%
2014	7,96%
2015	8,64%
2016	9,05%
2017	9,61%
2018	10,56%
2019	11,41%

Iturria: norberak egina. Datuak: Errenteriako Udala.

Aurreko taulan ikusten den bezala, Errenteria herriko atzerritarren kopuruak goranzko bilakaera izan du azken urteetan zehar. 2003arekin alderatuta, 2019an atzerritarren kopuruak ia %10eko igoera izan du. Datu hauekin baieztatu daitezke udalerrian atzerritarren ehunekoa geroz handiagoa dela, eta horrexegatik, beharrezkoa da aniztasuna hezkuntza-arloan balio positibo gisa lantzea, kohesio bat bermatzeko.

2 . Figura: familia tradizionalen bilakaera 1981tik 2001ra arte.




Iturria: norberak egina. Datuak: Eustat, 2004.

Familia motei dagokienez, 1981an, 2.Figuran ikusi daitekeen moduan, familia guztien zati handi bat (%63ak) familia tradizionalak (familia nuklear edo heteronormatiboak ere deitzen zaie) osatzen zuten; familia tradizionaltzat bikote heterosexual bat seme-alabekin hartzen da. Aldiz urteak pasatzean poderioz, kopuru hau nabarmenki murrizten joan da, eta azken datuen arabera, 2001an %63tik %44,4ra jaitsi zen. Beraz, baieztatu daiteke, eredu berriak agertu direla, eta Eustat-ek (2004) baieztatu zuen moduan: “Familia tradizionalak nagusitasuna galdu du, euskal familien erdiak baino gutxiago ordezkatzeko baititu”, hots bikote heterosexualak osatutako familiek. Ondorioz, gizartean familia-eredu berriak dauden moduan, eskolan ere hala izan ohi da, eta beraz gaia landu beharko du, beste familia-motak ezagutzera eramanez, ez soilik tradizionala.

Halaber, garrantzitsua da genero-desberdintasunari buruzko datuak ezagutzea. Ildo honetatik jota, lan-desberdintasuna eta genero-indarkeriaren datuak aztertuko dira. Genero indarkeriarekin hasiz, datuak 3.Figuran aurkezten dira.

3.Figura: EAE-n, emakumeen aurkako indarkeria jasan duten emakumeen banaketa, adinaren arabera. 2019an.




Iturria: norberak egina. Datuak: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila, 2020.

3. Figurarekin argi geratzen dena ondorengo da: adin guztietatik, emakumeen aurkako indarkeria jasan duten emakumeen %5ak 14 urte baino gutxiago zituen, adin tarte hau

da lan honetan gehien interesatzen dena, eta nahiz eta beste adin tarte batzuek kopurua handiagoa izan, oraindik ere oso azpimarragarria izaten jarraitzen du.

Lan-arloko genero-desberdintasunarekin jarraituz, adierazle ezberdinak azter daitezke (soldata-arrakala, zuzendari lanpostuak, kontratu-motak, jarduera sektoreak...). Kasu honetan, ordea, ikuspuntua soldata-arrakalan jarriko da.


4.Figura: EAEn urteko batz besteko irabazia (€), adinaren eta sexuaren arabera (2015eko datuak).



Iturria: Norberak egina. Datuak: Emakunde (2015ko datuak. 2017an argitaratuak)

4.Figurak agerian uzten du oraindik ere gizon eta emakumeen artean dagoen desberdintasuna, kasu honetan soldataren esparruan. Eta horregatik, ezinbestekotzat jotzen da lan honetan genero berdintasunaren inguruko gaia lantzea hezkuntza arloan. Gaitasun desberdineko jendearen ehunekoa ikusiko da ondorengo datuetan, aniztasuna zenbaterainokoa den jakiteko helburuarekin.

5.Figura: 33% baino ezgaitasun-gradu handiagoa duten pertsonen eboluzioa, Erreterian.



Iturria: norberak egina. Datuak: Gipuzkoako Gizarte Behatokia (Behagi), 2020.

5.Figuran ikus daitekeen moduan, 2020an, Errenteriako biztanle guztien artean %8ak zuen ezgaitasun balorazioa diagnostikatuta. Hori dela eta, aniztasunaren gaia, eta oraindik eta zehatzago, gaitasun desberdinak dituzten pertsonetikiko errespetua, eskolak landu behar duela argi uzten da.

5. Ikerketa

Teoria ikusita, testuingurua ezagututa eta balioen inguruan gogoeta egin ondoren, ondorengo kapitulu lan honen muinean murgilduko da. Hemen, Errenteriako ikastetxeko 4 urteko gelan aurki daitezkeen materialak aztertuko dira, hauek transmititzen dituzten balioei izena emanez, eta balio hauek sailkatuz.

Ikerketa eta balorazioa soilik balioei dagokionez egingo da. Izan ere, beste faktore asko azter daitezke material bati dagokionez (adinerako egokia den ala ez, adibidez), baina dagokion gaia soilik ebaluatuko da zati honetan, guztiz objektiboa izan dadin.

Material guztiei azterketa berdina egiteko eta ahalik eta zehatzena izateko, ondorengo metodologia erabiliko da: lehenik eta behin dagokion materiala zer den eta zertarako erabiltzen den deskribatuko da; ondoren, honek zein balio transmititzen dituen

eta balio hauek positiboak ala negatiboak diren; eta azkenik, semaforo baten irudia erabiliko da, eta honen hiru koloreak, azken ebaluaketa egiteko, bisualagoa izan dadin.

Materiala zehatz mehatz aztertu aurretik, ordea, gelaren funtzionamendu eta antolakuntza azaltzea garrantzitsua izango da, ordena hau jarraituko da eta ondoren analisia egiteko. Ikasgela txokoetan dago banatua, eta txoko bakoitzak dagokion materiala du. Ondorengoak dira txokoak: matematika txokoa, idazketa txokoa, margotegi txokoa, etxe txokoa eta eraikuntza txokoa. Txoko bakoitzean gidatutako jarduerak egiteko materialaz gain, jarduera horiek burutu ostean libre jolasteko materiala ere badute.

Matematika txokoan material ugari aurki daiteke, baina esanguratsuenean jarriko da begirada. Eskola honetan Montessori metodologia jarraitzen saiatzen dira, eta bereziki matematiketan metodo hau buru-belarri jarraitzen dute. Hori horrela izanik, aztertuko den lehen materiala matematikako Montessori materiala izango da, bertan, zenbakizko bolatxoak, listoiak hondar-kutxa, ... sartuko lirateke. Material honen helburua zenbakiak irakastearna da, hauen ordena, logika eta segidaz ohartzea eta barneratzea. Argazkietan ikus daitekeen moduan, hauen helburua erabat matematikoa da, balioen gaian ez baitira gehiegi murgiltzen.

Beraz, material hau, balioei dagokienez, neutrotzat jo daiteke.




Montessoriren materialaz gain, ordea, matematika txokoan beste apaltxo batean matematikako lanak bukatu ondoren, haurrek nahi dutenean jolasteko materiala dute eskuragarri; bertan batez ere puzzleak eta karta jolasak dituzte.

Bigarren materiala beraz, hurrei gehien gustatzen zaiena eta gehien erabiltzen dutena da: Pirritx eta Porrotxen familien karta-jokoa da. 6 familia daude karta-joko honetan eta familia bakoitza desberdina da; familia bat bi amez osatuta dago, beste

batek bakarrik aitona eta amona ditu, beste familia bat kanpotarra da eta gurasoez gain amaren laguna eta aitaren lagunaz ere osatzen da, etab. Familia bakoitzak kolore bat du eta haurrak karta guztiak buruz behera mahaian sakabanatu ondoren, familia berdineko kartak aukeratu behar dituzte.


Zalantzarik gabe material honen helburua oso argia da: memoria trebatzeaz gain, familia mota ezberdinak ezagutzea eta guztiak zilegi direla transmititzea. Aniztasun transmititzearen garrantzia argi utzi da marko teorikoan bai Curriculumak eta baita beste hainbat autorek ere ezinbesteko balioztat jotzen dute. Beraz, familia aniztasuna transmititzen duten material honek balio positiboak transmititzen dizkie hurrei.



Aztertuko den hirugarren materiala 1965ean sortutako familia-karta mitiko hau izango da. Jolas hau aurrez azaldu denaren antzekoa da, 7 familia aurki daitezke jokoan, familia bakoitza munduko toki ezberdinekoak. Garai batean txikienei modu dibertigarrian kultura ezberdinetara heltzeko aukera izan zezakeen. Baina gaur egun, 2021ean estereotipoz josita dagoela antzeman daiteke. Familia guztiak ama batez, aita batez, aiton-amonez eta seme-alabez osatuta daudela transmititzen dute, eta pertsonaia bakoitza jarduera jakin bat egiten ari dela, hauek estereotipo sexistak jarraituz: ama arropa garbitzen ala janaria prestatzen; aita lanean ala ehiza egiten; alaba panpinekin jolasten, eta semea gezia eta arkuarekin jolastuz.

Kulturaren aspektutik transmititzen duten mezua ez da positiboa. Izan ere, fisikoki guztiz estereotipatuak azaltzen dira; benetan janzten ez dituzten jantziekin.

Aurreko guztia kontuan izanik, karta-jolas honek balio atzerakoiak transmititzen ditu; familia heterosexual tradizionala, kultur estereotipoak eta jarrera sexistak. Beraz, balio negatiboak transmititzen dituela esan daiteke.



Matematika txokoarekin amaitzeko, Pirritx eta Porrotxen puzzle hauek dituzte haurrak eskuragarri, hauek ere familiekin lotuta. Pieza handiko puzzleak dira, eta, laguntzeko, puzzlearen irudia dute kartulina batean, nahi izanez gero, horren gainean piezak jartzen joateko. Hiru puzzleetan familiak ikus daitezke, baina familia bakoitza ezberdina da; batean umea (txinatarra) eta aitona azaltzen dira, beste batean bi ama umearekin (umea ospitalean dago) eta azkenekoak ama eta aita bat umearekin (gurasoak beren bikote propioa dutela ikus daiteke, bananduak daude eta).

Pirritx eta Porrotxen karta-jokoan gisa, puzzle hauek ere balio antzekoak transmititzen dituzte. Batetik familia mota ezberdinak ezagutaraztera eramaten dituzte, ez dagoela mota bakarra. Gainera kultur aniztasuna ere antzeman daiteke.

Guzti honekin puzzle hauek balio positiboak transmititzen dituztela ondoriozta daiteke.



Idazketa txokoan jarduera gidatuetan orri txuri bat hartu eta beraien izena eta gelakideena idaztera trebatzen aritzen ziren.

Txoko honetako benetako mamia ipuinetan aurki daiteke. Jarduera gidatua amaitzean, liburutegitik liburu bat hartu behar dute eta alfonbran ala mahai gainean ipuina irakurri/ikusi. Barietate handiko kolekzioa osatu dute gelan, 20 liburu inguru izango dituzte. Haurrek gehien hartzen dituzten ipuinak behatzen ibili eta gero, hautaketa bat egin da eta guztietatik batzuk ebaluatuko dira ondorengo zatian.

Elmer elefante famatuaren ipuina gehien hautatzen zuten ipuina izan ohi zen. Bertan Elmer bera aurkezten digu, koloretako elefantea. Desberdina denez gaizki sentitzen da, eta abentura bat bizi ondoren ohartzen da bera den bezalakoa izateagatik maite dutela familiak eta lagunak.

David McKee-ren istorio honek laguntasuna, norberarekiko maitasuna, inklusioa eta onarpenaren balioak transmititzen ditu modu dibertigarri batean, eta horregatik balioen semaforoan material positibotzat joko da Elmerren liburua.



Klasikoen inguruko eztabaida puri-purian egon da azken aldian. Klasikoak bai ala ez? Bada, *Edunezuri* ipuina 4 urteko gelan ezinbestekoa izan ohi zen. Ikasle askoren (gehienetan nesken) lehen aukera izan ohi zen gidatutako jarduerak amaitzean.

Ipuinak ondorengoia kontatzen du: Edunezuri erreinuko neskarik politena zenez, erreginak hil egin nahi zuen eta beraz, Edunezuri etxe ezezagun batean ezkutatzen da, non, bertan, 7 ipotx gizon bizi dira. Edunezurik bertan geratzearen truke etxerako lanak egingo dituela eskaintzen die (etxea hondamendi bat zegoen eginda, beraiek lanean igarotzen zutelako eguna). Halako batean erreginak Edunezuri pozoitzen du sagar batekin, eta bera salbatzeko, printze ezezagun batek musu ematen dio, horrela esnatu eta zoriontsu bizi izan ziren guztiak.

Ipuin honek pare bat mezu transmititzen ditu: batetik, emakumeen arteko lehia edertasunagatik, bestetik, emakume baten rola etxe batean (garbitzea eta janaria prestatzea) eta azkenik, printze baten beharra bizirik mantentzeko.

Hala bada, balioen ikuspuntutik, haurrentzat negatiboak diren balioak transmititzen ditu ipuin honek, jarrera sexistak, estereotipatuak eta emakumea gutxien dutenak transmititzen ditu eta. Honen guztiagatik, semaforoan kolore gorrian jarriko genuke.



Polita liburua ikasle batek ekarri zuen gelara, opari gisa. Nobedade berria zela eta hurrei asko gustatu zitzaion. Ipuin honek sorgin baten pasarte bat kontatzen du; zita bat ateratzen zaio Ogro jaunarekin, eta harantz zihoala, hainbat animaliekin topatzen da. Hauetako bakoitzak esaten dio sorginari ezin duela itxura horiekin Ogro jaunarengana joan, eta beraiek bultzatuta, makiltxo magikoa hartu eta sudurra, ilea, kokotza... aldatzen ditu. Ogroarengana irixtean ez du ezagutzen sorgina, beste itxura bat zuelako. Sorgina orduan ohartzen da Ogroari bera den bezala gustatzen zaiola.

Ipuin honek, dibertigarria izateaz gain, mezu garrantzitsu bat ere transmititzen du: norbere burua maite behar dela eta besteek esaten dutenari garrantzi gutxi eman behar zaiola. Beraz, balioei dagozkionez, ipuin honek mezu positiboak transmititzen dizkie irakurleei, modu dibertigarri eta atsegin batean, gainera; beraz, balioen semaforoan kolore berdez jarriko dugu.



Gelako liburutegian bazeuden 3 edo 4 ipuin printzesa klasikoaren inguruan. *Errauskiñe* zen horietako beste ipuin bat.

Ipuin honek Errauskiñe aurkezten du: bere amaordearekin eta bi ahizpaorderekin bizi den neska. Neska honi gaizki tratatzen dio bere familiak, baina halako batean, amabitxi batek itxura aldatzen lagunduta, dantzaldi batera joateko aukera izaten du eta han printzearekin datza egiten du. Printzea Errauskiñez guztiz enamoratzen da, baina berak gaueko hamabietako etxean egon behar du, ordurako amabitxiaren magia desagertuko da eta. Hala ba, korrika doanean etxeruntz, eskaileretan kristalezko zapata

erortzen zaio; printzeak hau aurkitu eta herriko neska guztiei probatzen die zapata bere maitea aurkitzeko. Amaieran, nahiko lan izanda, lortzen du Errauskiñe aurkitzea, eta ezkondu egiten dira, amaordea eta ahizpaordeen atsekaberako.

Beste behin ere, printzesa klasikoen ipuinetan, edertasunaren garrantzia, amaorde gaiztoen mitoa, printze dotore batek salbatzeko beharra eta emakumeen arteko lehia bultzatzen ditu. Balio hauek haurretan konplexuak, dependentziak eta gorrotoak sortarazten ditu. Beraz, guzti honekin, esan daiteke *Errauskiñe* ipuinak balio negatiboak transmititzen dituela.



Marrazketa txokoan, ez zegoen jarduera gidaturik, bakoitzak nahi zuenean ibil zitekeen, txokoaren barneko zereginetan beti ere. Horretarako batetik, tenperak, errotulagailuak, guraizeak, margoak, gometxak eta beste hainbat material zituzten eskuragarri, haien marrazkiak egiteko. Bestetik, ordea, marrazketa ala margotegi txokoan ordenagailua zegoen eskuragarri. Mahaitxo batean ordenagailu bat zegoen, non irakasleari eskatuz gero martxan jarri eta Urtxintxaren Xango CD-ROMa ipintzen zuen.

Hori hala izanda, Xango jolasaren barnean, beste hainbat jolas txiki aurkitzen zituzten: zenbakien laguntzarekin marrazki bat margotu, ipuinak entzun eta ikusi, matematikak egiteko jarduerak, eta beste hainbat jolas gehiago, baina hauek zaharragoentzat zeuden eginak.

CD-ak dagoeneko urte batzuk baditu, non urte hauetan materiala berritzen eta aldatzen joan den. Hori dela eta, material honek, mezu positibo batzuk transmititzen ditu, baina baita negatibo mordoxka ere. Jolas hauetako ipuinek, adibidez, mezu tradizionalak eta atzerakoiak bidaltzen ditu (ikus, bikote heterosexuala, non emakumea sukaldean


dagoen eta gizonezkoek lana egiten duten). Aldiz beste jolas batek, naturarekiko errespetua eta ezagutzarako balio digu.

Hau guztiagatik ezin da material positibotzat hartu, nahiz eta zenbait mezu positibo transmititu, zeren eta mezu negatiboak ugariagoak dira.



Jarraitzeko, **etxe-txokoa** aztertuko da. Egia esateko, etxe-txokoan aurki daitezkeen material guztiak neutrotzat jo daitezke. Izan ere, etxe txokoa esperimenzio txoko gisa dute prestatuta. Batetik, tamaina ezberdinetako inbutu, ontzi, botila eta balde dituzte, urarekin esperimenzatzeko. Eta bestetik, apaletan ikusten diren egurrezko kaxetan, material jakin bat horrekin jolasteko: lentejak, arroza, hondarra... Hauetaz gain, 2 edo 3 astetik behin, etxe-txokoko materiala aldatu egiten da, esperimenzioa eta material berriarekin ibiltzeko.

Hori dela eta, orokorrean, esan daiteke etxe-txokoa neutroa dela; materialen aldetik behintzat ez duela inongo baliorik transmititzen.



Eraikuntza txokoan, hurren eskura dauden apal batzuetan zegoen kokatuta materiala. Apal hauetan 5 kutxa aurki daitezke, bakoitza jostailu edota eraikuntzak egiteko piezekin beteta. Horietariko bat Condis, piezas magnéticas izeneko jolas bat zen. Honek imana zuten piezak ekartzen zituen, hauekin eraikuntza ala irudi bat egiteko asmoarekin.

Bai material hau, eta baita beste eraikuntzako jolasak ere, neutrotzat jo daitezke; izan ere, piezekin soilik jolasten dira haurrak, eta hauek, inongo mezurik ez dute transmititzen: ez dute irudirik, ez testurik, ez beste inongo biderik mezuak transmititzeko.



Eraikuntza txokoan, eraikinak osatzeko materialaz gain, badago Barbie panpinez betetako kutxa bat ere. Kutxa honetan 5-6 panpin daude, beren jantzi eta zapatekin, eta hauetaz gain, Barbie-ren autokarabana ere kutxan egoten da.

Nahiz eta egia izan jostailuen oraingo industria aldatzen ari dela hurrei helarazten zaizkiei mezuei dagokionez, jostailu hau 2015ean sortu zen, eta nahiz eta urte asko ez igaro, oraindik ere gauzak aldatzen hasi gabeak ziren.

Jostailu honek guztiz balio negatiboak transmititzen dizkie hurrei. Balio nagusia emakume gazte baten gorputz-irudiaren buruzko ideia irrealak sustatzen dituela da: eskala erreal batean, frogatu da 1,75m-ko altuera izango lukeela, 99-46-84ko neurriak eta proportzio hauengatik anorexia diagnostikatua izango lukeela eta ezingo lukeela menstruatuta (Hernández, 2016); bestetik, itxuraren, arroparen eta maitasun erromantiko tradizionalen ideiak bultzatzen ditu.

Beraz, argi dago esandako guztia eta gero, material honek balio oso negatiboak helarazten dizkiela hurrei.



Txoko guztiak aztertu eta ebaluatuta, **ingeleseko** liburuxkaren txanda iritsi da. 4 urteko gelan Harper Collins argitaletxearen *Discover with Dex 1* erabiltzen dute. Bertan, astean bi egunetan, tutorea ez den irakasle ezberdin batekin gai eta istorio desberdinak lantzen dituzte, non, bertako pertsonaiak beti berdinak dira: Dex, Meg eta Charlie.

Nahiz eta istorioak politak eta dibertigarriak izan, aipaturako pertsonaiak identifikatzeko egiten dituzten keinuak ez dira batere positiboak. Hau da, irakaslea istorioa kontatzen ari den bitartean pertsonaia bat aipatzen duen bakoitzean keinu bat egiten du haurrak izen hori pertsonaiekin identifikatzeko. Esate baterako, Meg aipatzen duen bakoitzean gona baten keinua egiten du. Aldiz Charlie aipatzen duen momentuan besoekin indarraren keinua egiten du. Charlie aipatzen duenean berriz, tripa handiarekin definitzen dute.

Nahiz eta keinu hauen helburua hurrek hobeto ulertzea ingelesa izan, modu negatiboan egiten da. Zergatik oraindik ere neskak gonarekin identifikatu behar dira eta mutilak indarrarekin? Eta hau kasu puntuala izango balitz, normala izango litzateke. Baina ipuin desberdinetako neska eta mutilekin berdina pasatzen da: mutilak indar keinuarekin identifikatzen dituzte, eta neskak gonaren keinuaren bitartez.

Ingeleseko materialak transmititzen dituzten balioak, beraz, negatiboak izango dira. Hauek mezu estereotipatuak transmititzen dituzte eta.



Edozein tartetxo libre duten momentuan (jolasgaraia baino lehen, ingelesaren aurretik...) gelako ordenagailuaren aurrean jartzen dira denak eta Ene kanta youtubeko kanaleko abestiak ipintzen dituzte. Gehienetan *Tortotxiki* eta *Hiru txerrikumeak* abestiak jartzen dituzte, hauek dira eta hurrei gehien gustatzen zaizkienak. Abesti hauek bideoa ere badute, eta bertan istorio txikiak kontatzen dira abestien bidez.

Nahiko aurrerakoiak izan ohi dira bertako abestiak. Mezu positiboak transmititzen dizkiete hurrei: haunditzean edozer izan zaitezkeela (neska ala mutil izan), kanpotik etorritakoei besoak zabalekin jaso behar direla, eta beste hainbat ipuin tradizionaleri (hots, *Txanogorritxu*) beste buelta bat eman diote, hauek berez transmititzen dituzten mezuak mezu positibo bihurtzeko.

Hori guztia horrela izanik, Ene kanta-ek egiten dituzten bideoak positibotzat joko dira, transmititzen dituzten mezuagatik.



Ingelesaren gisa, astean bi egunetan tutorea ez den beste irakasle bat joaten da gelara **musika** lantzerantz. Azterlan hau egin den denboraldian ipuin musikalak lantzen ibili dira, eta horietako ipuin bat *Ahate itxusia* izan da.

Ipuinak ahate txiki bat du protagonista, baina ez da beste ahateak bezalakoa, "itxusia" da, eta beraz gainontzeko ahateok barre eta burla egiten diote. Nazkatuta, alde egiten du bere etxetik, baina handitzen denean eta zisne eder bat bihurtzen denean, etxera bueltatu eta guztiak liluratuta uzten ditu bere edertasunarekin.

Ipuin klasiko hau hasiera batean mezu positiboa transmititzen duela ematen du: itxurak ez duela inporta eta barrukoari begiratu behar zaiola kanpoko itxurari baino gehiago, horixe da egilearen asmoa. Baina ez da benetan ipuinean ikusten dena; ipuinak soilik pertsona bat ederra denean onartuko eta maiteko dela adierazten du, Ahate Itxusiarri gertatzen zaion bezala.

Horregeatik, guztiak fisikoki berdinak izan behar gara transmitzeagatik eta itxurari garrantzi handia emateagatik, mezu negatiboak transmititzen dituela baieztatu daiteke.



6. Ondorioak

Lanaren hasieran aipatu den moduan, proiektu honen helburu nagusia 2020-2021 ikasturtean ikasgelan erabiltzen diren materialek transmititzen dituzten balioaz jabetzea izan da. Beraz, aztertutako material guztia, hauen behaketa taulak buruta izanda eta semaforoa erabilia, ondorengo hausnarketak atera dira zehaztutako helburuei dagokienez.

Ondorio gisa, ikerketaren emaitzak aztertuta, baieztatu daiteke 2020-2021 ikasturteko 4 urteko gelan balio positibo, negatibo zein neutroak diren materialak aurki daitezkeela. Hau da, kontzienteki ala oharkabean, ikasgela batean dagoen materiala ugaria da, eta horrek, askotan, hezitzailea jabetzen ez den materialak haurren esku uztera eramaten du. Beraz, hori horrela izanda, esan daiteke, nahiz eta balioen inguruko gaien gaur egungo hezitzaileak geroz eta kontzientziatuagoak egon, oraindik ere hutsuneak edota ahulguneak antzeman direla egindako ikerketan.

Modu honetan, azterlan honek agerian uzten du ikuspuntua aldatu beharra dagoela balioetan oinarritutako hezkuntzan. Dena den, egia da hezitzaileen aldetik saiakera eta nolabaiteko kezka ikusi dela balioei dagokienez. Baina kezka hau gehiago zentratu da (ezjakintasun eta denbora faltagatik) ahozko diskurtsoan, ekintzetan ala, dagokigun gaiaren moduan, materialen hautaketan baino.

Aztertutako 15 material desberdinetatik 7 materialek mezu negatiboak transmititzen dituzte, 3k neutroak eta 5ek mezu positiboak. Hau da, material guztien

%46ak balio negatiboak transmititzen dizkie hurrei. Hau guztiagatik, ikerketaren ondoren atera den beste ondorio bat ondorengoa izan da: materialen kasuan, kantitatea hautatzen da, askotan, kalitatearen gaintik. Ipuinetan, esate baterako, ikusi da liburuak pilatuz joan direla urte eta kurtso guztian zehar eta ez dela behar bezalako aukeraketa bat egin. Honen ondorioetako bat (analisiaren antzeman den moduan) kontrako mezuak transmititzen dituzten materialak izatea da. Horregatik, funtsezkoa izango da ahoz transmititzen ala irakasten denaren eta praktikan hurrek bizi dutenaren artean koherentzia egotea; hau da, ezinezkoa da norberak eraikia ez duen balioan heztea.

Era berean, ikasgelako materiala aztertuta eta behaketa tabletan oinarrituta, lan honen prozesuan ateratako beste ondorio bat honako hau da; askotan, erosotasunagatik, ezjakintasunagatik ala denbora faltagatik, soilik kutsu didaktikoari ematen zaio garrantzia: zenbakiak ikasteari, hizkiak ezagutzeari, marrik atera gabe margotzeari... beste hainbat aspektu garrantzitsu alde batera utzita.

Lanaren hasieran aipatutako helburuetako bat ea hurrek mezu negatiboak transmititzen zituzten materialak erabiltzen jarraitzen zuten ala ez ohartzea zen. Bada, ikerketa honetan argi ikusi da, haurrak, nahiz eta mahiz beraiek izan ohartzen direnak material zehatz batek transmititzen dituen balioak negatiboak direla, askotan berdina zaie, eta erabiltzen jarraitzen dute. Hau, batez ere, ipuinekin ikusi da.

Marko teorikoan azaldu den moduan, gaur egun balioetan oinarritutako hezkuntzak garrantzia bereganatu du, bai. Gero eta gehiago zaintzen da ikasleei igortzen zaizkien mezuak. Baina zer gertatzen da zuzenean bidaltzen ez dizkiegun mezuekin, ahozko diskurtsoaz haratago doazen portaerekin? Inplizituki transmititzen diren balioak ere oso garrantzitsuak dira, eta horregatik da lan hau horren garrantzitsua. Balioen munduan beste ikuspegi bat hartzen duelako kontuan, agian, hasiera batean, ez dena hain nabarmena. Esan daiteke, balio positiboak lantzeko teoria guztiok dakigula, eta honen

ondorioak ezagutzen direla, baina, praktikara eramateko orduan, ez zaio beharrezko garrantzia ematen.

Hori dela eta, ondoren, lana osa dezaketen etorkizuneko hainbat iradokizun jaso dira, ikasgelan erabiltzen diren materialek transmititzen dituzten balioez jabetzeko, eta beraz, hobetzeko helburuarekin:

- Nahiz eta zaila izan, hezitzaileak denbora bat hartu behar du gelari eta bertako materialei eskaintzeko.
- Eskolako zuzendaritzaren aldetik ere esku-hartze zuzena egon behar da. Batzuetan zaila izan daiteke hezitzaile bakar batentzat material (eta beraz, balio) bat hautatzea, horrek ekar dezaken ondorioekin. Beraz, zuzendaritza aldetik ere laguntza eta babes-papera jokatzeko guztion onerako izango da.
- Ezin da materialen kanpoko itxurarekin geratu. Hauei buelta bat eman behar zaie. Batzuetan, lehenengo begiradan ez baita transmititzen duen guztia antzematen.
- Haurren aukeraketei erreparatu. Benetan zer gustatzen zaien galdetu, zer hautatzen duten behatu eta proposamenak eskatu.
- Irakasle bat material batek mezu negatiboak transmititzen dituela ohartzen bada, ez da zertan guztiz ezabatu behar. Material honetaz baliatu daiteke haurrekin gai horren inguruko lanketa egiteko. Guztion artean, borobilean, honen lanketa egin daiteke, zergatiak, adibideak eta erreflexioak bultzatuz. Izan ere, maiz, haurrak izan ohi dira ohartzen direnak material batek beraientzat negatiboa den mezuren bat transmititzen dutenean, beraz, hau aprobeztatuz guztion artean lanketa bai egin daiteke.

Nahiz eta lan honetan murgilduta egoteak nagusiki ekarpen positiboak ekarri, oztopo ala zailtasun batzuk ere izan dira bide luze honetan zehar. Arazo horietatik nagusiena ondorengoa izan da: balioetan oinarritutako hezkuntzaren inguruko informazioa ugaria zen moduan, materiala eta balioak lotzen zuten informazioa oso eskasa eta aurkitzeko

zaila izan da. Hori izan da desabantailarik handiena. Arazo honetaz gain, beste txikiago batzuk ere izan dira, baina arazo hauekin, zorionez, konponbidea ala beste bide bat aurkitzeko aukera izan da: ikerketaren inguruko euskarazko informazio mugatua; lanaren hasieran ez jakitea nondik hasi, ezta nora joan; eta, noizbehinka, teknologia eta konexio arazoak.

Erreflexio moduan, azpimarratu nahi nuke lan honek niregan izan duen eragina. Nahiz eta hasieratik gaia interesgarria iruditu, bertan gehiago murgildu naizen momentuan ikusi dut benetan balioek duten garrantzia, bai orokorrean, baina bereziki hezkuntzan. Hori dela eta, lan honek gogoeta eginarazi dit, niri, pertsonalki, etorkizun batean izan nahi dudan irakasle motaren inguruan, nik etorkizun batean beteko dudan paperaren inguruan eta nire ikasleei transmitituko dizkioten mezuen inguruan.

Azkenik, ez nuke nire lana amaitutzat eman nahi eskolako balioen gaia beste ikasle, irakasle ala edozeini ikertzen jarraitzea animatu gabe. Nik, materialaren esparrua ezagututa, etorkizun batean, balioetan oinarritutako hezkuntzaren inguruan gehiago ikertzen jarraitu nahiko nuke. Ikerketaren ildoak, zehazki, genero ikuspuntutik begiratuta aztertzea gustatuko litzaidake.

7. Bibliografía

- Arana, M. eta Batista, N. (1999). La educación en valores: una propuesta pedagógica para la formación profesional. *Pedagogía Universitaria*, 4.
- Aranguren, L. (2002) Educar en el compromiso: Valores para vivir en sociedad. Madrid: PPC Editorial.
- Ballester Sampedro, S. (2009) Educación en valores en el currículo. *Revista digital de innovación y experiencias educativas*, 16. https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_16/SERGIO_BALLESTER_1.pdf -tik berreskuratua.
- Behagi (2020). *Evolución de las personas con valoración de discapacidad (% de la población), por sexo.* [Grafikoa]. <http://www.behagi.eus/es/indicadores/personas-con-valoracin-de-discapacidad/p-17/> -tik berreskuratua.
- Cabrera, F. et al (2018, ekainak 26) *Resolviendo incógnitas en torno a la igualdad de género: la importancia de educar desde la infancia.* Educaweb. 2021ko maiatzaren 3 an <https://www.educaweb.com/noticia/2018/06/26/igualdad-genero-importancia-educar-infancia-18508/> -an berreskuratua.
- Camañánez Mont, Alejandra (2016) *La naturaleza en educación infantil vista desde la perspectiva docente.* Gradu Amaierako Lana. Valentzia: Universitat Jaume I.
- Cristobal Alonso, R. (2014) *La diversidad familiar desde un modelo de escuela inclusiva* (gradu amaierako lana). Universidad Internacional de La Rioja, Murcia, España.
- Díaz Barriaga, A. (2006). La educación en valores: Avatares del currículum formal, oculto y los temas transversales. *Revista Electrónica de Investigación Educativa*, 8(1). <https://redie.uabc.mx/redie/article/view/117> -tik berreskuratua.
- del Prette eta al. (2013) La tolerancia y el respeto a las diferencias: efectos de una actividad educativa en la escuela. *Apuntes de psicología*, 31 (1), 59-66.

del Valle, A. eta Usategui, E. (2006) "Balioekin lan egitea euskal eskolan: irakasleen ikuspuntuak", Mila Amurrio eta Ane Larrinaga. *Hezkuntza Euskal Herrian aztergai*. Donostia: Utriusque Vasconiae (55).

Duart, J.M. (2003). *La organización ética de la escuela y la transmisión de valores*. Bartzelona: Paidós.

EDE Fundazioa (2020). *Distribución de las mujeres que han sufrido violencia contra las mujeres según la edad. Absolutos y % CAE* [Grafikoa]. https://www.eustat.eus/elementos/Violencia-contra-las-mujeres-Informe-anual-2019/inf0017631_c.pdf -tik berreskuratua.

Emakunde (2018). *Soldata arrakala Euskal Autonomia Erkidegoan*. [Grafikoa]. https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes/e_u_emakunde/adjuntos/soldata_arakala_eae_2018.pdf -tik berreskuratua.

Errenteriako Udala. (2019). *Atzerritarren Historikoa* [Grafikoa]. <https://errenteria.eus/herria/estadistikak/#atzerritarren-historikoa-%20%20%20%20tik> -tik berreskuratuta.

Euskal Autonomia Erkidegoa. 237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkaria, 2016ko urtarrilaren 15a.

Eustat (2004, apirilak 14) *Censos de población y viviendas. Familias año 2001*. [Prentsa-oharra] https://www.eustat.eus/elementos/ele0002500/la-familia-tradicional-pierde-su-hegemonia-al-representar-menos-de-la-mitad-de-las-familias-vascas/not0002541_c.html -tik berreskuratua.

García Hernández, N. (2016) "Barbie reabre el debate sobre el cuerpo femenino" *El diario*. Apirilaren 23a. Gizartea.

González Tello, S. (2017) *Diversidad de género y discriminación en la escuela: percepción y papel docente en Educación Primaria* (gradu amaierako lana). Universidad de Cantabria, Santander, España.

- Granados Martínez, A. (2010). Las funciones sociales de la escuela. In Fernández Palomares, Francisco. (Coord.) *Sociología de la educación* (117-140 or.). Madrid: Pearson Prentice Hall.
- Granja Pascual, J.J. (2008). El currículum vasco a debate. *Ikastaria: cuadernos de educación*, 16, 143-168.
<https://www.ondarebideak.eus/kanpora/hedatuz.euskomedia.org/6820/1/16143168.pdf> -tik berreskuratua.
- Medrano Samaniego, M. (1999). ¿Es posible enseñar y aprender valores en la escuela? *Revista de psicodidáctica*, 7, 67-82.
- Nazio Batuen Batzar Nagusia: Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala. (1948) 217 (III) A. Paris, 1948.
- Pacheco García, M.T. (2011). La diversidad cultural en la escuela. Revista digital para profesionales de la enseñanza, 13.
<https://www.feandalucia.ccoo.es/docu/p5sd8303.pdf> -tik berreskuratua.
- Paniego, J.A. (2000) Educar personas solidarias. El laberinto de la educación en valores. *Contextos educativos* 3, 177-190.
- Parra Ortiz, J. M. (2003). La educación en valores y su práctica en el aula. *Tendencias Pedagógicas*, 8, 69-88.
- Pequefelicidad. (2017). *Matemáticas Montessori: los primeros materiales*. [Argazkia].
<http://www.pequefelicidad.com/2017/03/matematicas-montessori-los-primeros.html> -tik berreskuratua.
- Sandoval Manríquez, M. (2007). Sociología de los valores y juventud. *Última década*, 27, 95-118.
- Sacristán Lucas, A. (1987). En torno al currículum oculto. *Aldab: revista del Centro Asociado a la UNED de Melilla*. 7, 29-36.
- Torres Santomé, J. (2005). *El currículum oculto*. Madrid: Morata.
- Valero Garcia, J. M. (2003) *La escuela que yo quiero*. México, D.F: Editorial Progreso.

8. Eranskinak

1. Eranskina: Materialen behaketa taulak

Materiala: Montessori materiala	BAI	EZ	BESTE
Materialak irudiak ditu?		X	
Baiezkoa bada, irudi horiek mezuak transmititzen dituzte?			
Positiboak?			
Negatiboak?			
Materialak testua du?		X	
Baiezkoa bada, testu horrek mezuak transmititzen ditu?			
Positiboak?			
Negatiboak?			
Mezu negatiboak transmititzen baditu, haurrek gustuko dute? Erabiltzen dute?			
Material honekiko lanketa egin da gelan, guztion artean? (Baiezkoa bada zehaztu beste oharretan)		X	
Curriculumean azaltzen diran balioa lantzen du?		X	
Erantzuna baiezkoa bada aurreko galderan, zein gai?			
Beste oharrak:			

Materiala: Familias de 7 países.	BAI	EZ	BESTE
Materialak irudiak ditu?	X		
Baiezkoa bada, irudi horiek mezuak transmititzen dituzte?	X		
Positiboak?		X	
Negatiboak?	X		
Materialak testua du?	X		
Baiezkoa bada, testu horrek mezuak transmititzen ditu?		X	
Positiboak?			
Negatiboak?			
Mezu negatiboak transmititzen baditu, haurrek gustuko dute? Erabiltzen dute?	X		
Material honekiko lanketa egin da gelan, guztion artean? (Baiezkoa bada zehaztu beste oharretan)		X	
Curriculumean azaltzen diran balioa lantzen du?		X	
Beste oharrak:			

Materiala: Pirritx eta Porrotx. Familien-karta jolasa	BAI	EZ	BESTE
Materialak irudiak ditu?	X		
Baiezkoa bada, irudi horiek mezuak transmititzen dituzte?	X		
Positiboak?	X		
Negatiboak?		X	
Materialak testua du?	X		
Baiezkoa bada, testu horrek mezuak transmititzen ditu?		X	
Positiboak?			
Negatiboak?			
Mezu negatiboak transmititzen baditu, haurrek gustuko dute? Erabiltzen dute?			
Material honekiko lanketa egin da gelan, guztion artean? (Baiezkoa bada zehaztu beste oharretan)	X		
Curriculumean azaltzen diran balioa lantzen du?	X		

Beste oharrak: Karta hauen lanketa tutoreak gelara ekarri zituen lehen momentuan egin zen. Guztiok borobilean zeudela, jolasa azaltzeaz gain, 6 familiak errepasatu zituzten, hauen inguruan galderak eginez eta hausnarketara bultzatuz.

Materiala: Pirritx eta Porrotx. Familia milakolore	BAI	EZ	BESTE
Materialak irudiak ditu?	X		
Baiezkoa bada, irudi horiek mezuak transmititzen dituzte?	X		
Positiboak?	X		
Negatiboak?		X	
Materialak testua du?		X	
Baiezkoa bada, testu horrek mezuak transmititzen ditu?			
Positiboak?			
Negatiboak?			
Mezu negatiboak transmititzen baditu, haurrek gustuko dute? Erabiltzen dute?			
Material honekiko lanketa egin da gelan, guztion artean? (Baiezkoa bada zehaztu beste oharretan)		X	
Curriculumean azaltzen diran balioa lantzen du?	X		
Beste oharrak:			

Materiala: <i>Elmer</i>	BAI	EZ	BESTE
Materialak irudiak ditu?	X		
Baiezkoa bada, irudi horiek mezuak transmititzen dituzte?	X		
Positiboak?	X		
Negatiboak?		X	
Materialak testua du?	X		
Baiezkoa bada, testu horrek mezuak transmititzen ditu?	X		
Positiboak?	X		
Negatiboak?		X	
Mezu negatiboak transmititzen baditu, haurrek gustuko dute? Erabiltzen dute?			
Material honekiko lanketa egin da gelan, guztion artean? (Baiezkoa bada zehaztu beste oharretan)		X	
Curriculumean azaltzen diran balioa lantzen du?	X		
Beste oharrak:			

Materiala: <i>Edurnezuri</i>	BAI	EZ	BESTE
Materialak irudiak ditu?	X		
Baiezkoa bada, irudi horiek mezuak transmititzen dituzte?	X		
Positiboak?		X	
Negatiboak?	X		
Materialak testua du?	X		
Baiezkoa bada, testu horrek mezuak transmititzen ditu?	X		
Positiboak?		X	
Negatiboak?	X		
Mezu negatiboak transmititzen baditu, haurrek gustuko dute? Erabiltzen dute?	X		
Material honekiko lanketa egin da gelan, guztion artean? (Baiezkoa bada zehaztu beste oharretan)	X		
Curriculumean azaltzen diran balioa lantzen du?		X	
Erantzuna baiezkoa bada aurreko galderan, zein gai?	Familia eta kultur aniztasuna.		
Beste oharrak: Borobilean, irakasleak guztioi ipuina kontatu die baina bestelako lanketarik egin gabe.			

Materiala: <i>Polita</i>	BAI	EZ	BESTE
Materialak irudiak ditu?	X		
Baiezkoa bada, irudi horiek mezuak transmititzen dituzte?	X		
Positiboak?	X		
Negatiboak?		X	
Materialak testua du?	X		
Baiezkoa bada, testu horrek mezuak transmititzen ditu?	X		
Positiboak?	X		
Negatiboak?		X	
Mezu negatiboak transmititzen baditu, haurrek gustuko dute? Erabiltzen dute?			
Material honekiko lanketa egin da gelan, guztion artean? (Baiezkoa bada zehaztu beste oharretan)		X	
Curriculumean azaltzen diran balioa lantzen du?	X		
Erantzuna baiezkoa bada aurreko galderan, zein gai? Aniztasuna			
Beste oharrak:			

Materiala: <i>Errauskiñe</i>	BAI	EZ	BESTE
Materialak irudiak ditu?	X		
Baiezkoa bada, irudi horiek mezuak transmititzen dituzte?	X		
Positiboak?		X	
Negatiboak?	X		
Materialak testua du?	X		
Baiezkoa bada, testu horrek mezuak transmititzen ditu?	X		
Positiboak?		X	
Negatiboak?	X		
Mezu negatiboak transmititzen baditu, haurrek gustuko dute? Erabiltzen dute?	X		
Material honekiko lanketa egin da gelan, guztion artean? (Baiezkoa bada zehaztu beste oharretan)		X	
Curriculumean azaltzen diran balioa lantzen du?		X	
Erantzuna baiezkoa bada aurreko galderan, zein gai?			
Beste oharrak:			

Materiala: Xango. CD-ROMa	BAI	EZ	BESTE
Materialak irudiak ditu?	X		
Baiezkoa bada, irudi horiek mezuak transmititzen dituzte?	X		
Positiboak?	X		
Negatiboak?	X		
Materialak testua du?	X		
Baiezkoa bada, testu horrek mezuak transmititzen ditu?	X		
Positiboak?	X		
Negatiboak?	X		
Mezu negatiboak transmititzen baditu, haurrek gustuko dute? Erabiltzen dute?	X		
Material honekiko lanketa egin da gelan, guztion artean? (Baiezkoa bada zehaztu beste oharretan)		X	
Curriculumean azaltzen diran balioa lantzen du?	X		
Erantzuna baiezkoa bada aurreko galderan, zein gai?	Euskara, natura,		
Beste oharrak: Jolas batzuetan balio positiboak transmititzen ditu, baina beste batzuetan nahiko mezu tradizional eta negatiboak.			

Materiala: Inbutuak, botilak, ontziak, baldeak... (Etxe txokoko materiala)	BAI	EZ	BESTE
Materialak irudiak ditu?		X	
Baiezkoa bada, irudi horiek mezuak transmititzen dituzte?			
Positiboak?			
Negatiboak?			
Materialak testua du?		X	
Baiezkoa bada, testu horrek mezuak transmititzen ditu?			
Positiboak?			
Negatiboak?			
Mezu negatiboak transmititzen baditu, haurrek gustuko dute? Erabiltzen dute?			
Material honekiko lanketa egin da gelan, guztion artean? (Baiezkoa bada zehaztu beste oharretan)			
Curriculumean azaltzen diran balioa lantzen du?		X	
Erantzuna baiezkoa bada aurreko galderan, zein gai?			
Beste oharrak: Irudiak jolasaren kutxan azaltzen ziren, gordeta dagoena. Bertan hiru mutil agertzen ziren, piezekin jolasten.			

Materiala: Condis. Piezas magnéticas	BAI	EZ	BESTE
Materialak irudiak ditu?		X	
Baiezkoa bada, irudi horiek mezuak transmititzen dituzte?			
Positiboak?			
Negatiboak?			
Materialak testua du?		X	
Baiezkoa bada, testu horrek mezuak transmititzen ditu?			
Positiboak?			
Negatiboak?			
Mezu negatiboak transmititzen baditu, haurrek gustuko dute? Erabiltzen dute?			
Material honekiko lanketa egin da gelan, guztion artean? (Baiezkoa bada zehaztu beste oharretan)			
Curriculumean azaltzen diren balioak lantzen ditu?			

Materiala: Barbie eta karabana	BAI	EZ	BESTE
Materialak irudiak ditu?	X		
Baiezkoa bada, irudi horiek mezuak transmititzen dituzte?	X		
Positiboak?		X	
Negatiboak?	X		
Materialak testua du?		X	
Baiezkoa bada, testu horrek mezuak transmititzen ditu?			
Positiboak?			
Negatiboak?			
Mezu negatiboak transmititzen baditu, haurrek gustuko dute? Erabiltzen dute?			Batez ere neskek, bai.
Material honekiko lanketa egin da gelan, guztion artean? (Baiezkoa bada zehaztu beste oharretan)		X	
Curriculumean azaltzen diren balioak lantzen ditu?		X	

Materiala: Discover with Dex. 1	BAI	EZ	BESTE
Materialak irudiak ditu?	X		
Baiezkoa bada, irudi horiek mezuak transmititzen dituzte?	X		
Positiboak?		X	
Negatiboak?	X		
Materialak testua du?	X		
Baiezkoa bada, testu horrek mezuak transmititzen ditu?	X		
Positiboak?		X	
Negatiboak?		X	
Mezu negatiboak transmititzen baditu, haurrek gustuko dute? Erabiltzen dute?		X	
Material honekiko lanketa egin da gelan, guztion artean? (Baiezkoa bada zehaztu beste oharretan)		X	
Curriculumean azaltzen diren balioak lantzen ditu?		X	

Materiala: Ene kantak	BAI	EZ	BESTE
Materialak irudiak ditu?	X		
Baiezkoa bada, irudi horiek mezuak transmititzen dituzte?	X		
Positiboak?	X		
Negatiboak?		X	
Materialak testua du?	X		
Baiezkoa bada, testu horrek mezuak transmititzen ditu?	X		
Positiboak?	X		
Negatiboak?		X	
Mezu negatiboak transmititzen baditu, haurrek gustuko dute? Erabiltzen dute?	X		
Material honekiko lanketa egin da gelan, guztion artean? (Baiezkoa bada zehaztu beste oharretan)		X	
Curriculumean azaltzen diren balioak lantzen ditu?	X		
Beste oharrak: Aniztasuna eta inklusioa			

Materiala: Ahate Itxusia	BAI	EZ	BESTE
Materialak irudiak ditu?	X		
Baiezkoa bada, irudi horiek mezuak transmititzen dituzte?	X		
Positiboak?		X	
Negatiboak?	X		
Materialak testua du?	X		
Baiezkoa bada, testu horrek mezuak transmititzen ditu?		X	
Positiboak?		X	
Negatiboak?	X		
Mezu negatiboak transmititzen baditu, haurrek gustuko dute? Erabiltzen dute?	X		
Material honekiko lanketa egin da gelan, guztion artean? (Baiezkoa bada zehaztu beste oharretan)		X	
Curriculumean azaltzen diran balioa lantzen du?		X	